

Hitzaurrea

Iraultzaileen –gerora liberalak– eta Erregimen Zaharraren edo bizimodu tradizionalen defendatzaileen arteko gatazkek erabat markatu zuten Europako eta Amerikako historia XVIII. mende amaieratik XIX. mendea amaitu arte. Hain zuzen, gatazka ideologiko soilak izan baino, industria iraultza geldiezinaren aurrean sistema ekonomiko tradizionalaren alde borrokatzen zen, edo tradizioa eta pribilegio tradizionalak defendatzeko eta hemen garatu ezin ditugun beste hainbat arrazoiren alde. Mendebaldeko demokrazia deritzegun ia lurralde guztietan gertatu ziren gatazka horiek eta, neurri handiago

ala apalagoan, eragina izan dute errealitatea ulertzeko dugun moduan. XX. mendeko iraultza handien (ekonomikoak, sozialak, etab.) oinarri izan ziren, eta egungo gizartea itxuratu dute.

Alabaina, gatazka horiek sinplifikatuta transmititu zaizkio gizarte postmodernoari, baita klixetara murriztuta ere, zuten jatorri konplexutik urrun. Orain legitimismo karlista oso ikuspuntu ezberdinetatik ikusten da Espainian. Era berean, Estatu Batuetan Konfederazioaren arrazoiak esklabutzaren defentsa sutura eta arrazarekin lotutako faktoreetara murriztuta geratu dira,

matxinatzera eraman zituzten beste arrazoi politiko batzuk kontuan hartu gabe. Edo, Frantzian, legitimista vendéearren kausa.

Eta, hein batean, zinemak gatazka horiez eman digun ikuspegiaren ondorioa da hori. Izan ere, zinema pelikula garatzen den gizartearen isla da, edo alderantziz, zinemak gizarteak garai jakin bati buruz duen iritzia eta ikuspegia osatzen du¹. Hortaz, zineman karlismoaz eman diren ikuspegiek ikuspegi interesatu edo sinpleetara eramango gaituzte, edo guztiz kontrakora, gertakarien analisi sakonetara eta zehatz-mehatz egindako birsortzeetara.

Gure lurraldean, zehaztasun handiago edo apalagoarekin, hemeretzigarren mendeko gatazkek jorratu dituzten pelikulek analisi akademikoa merezi dute. Estella-Lizarrako Karlismoaren Museoan herritarrek Espainian eta Frantzian gai hori landu duen zinema aztertu eta ikuspegi zinematografiko horiek ezagutu ahal izango dituzte.

¹ Hollywoodeko ekoizpen handiak adibide argiak dira eta zinema historikoan eta abenturazko zineman azpi-genero bat sortu dute, baita errealitate historiko bat ulertzeko modua osatu ere. Adibidez, piraten zinema edo péplum deritzona.

Prólogo

Los conflictos entre revolucionarios, luego liberales, y los defensores del Antiguo Régimen o de las formas de vida tradicionales marcaron a sangre y fuego la historia europea y americana desde finales del siglo XVIII hasta todo el siglo XIX. En efecto, lejos de ser simples conflictos ideológicos se luchaba también por la predominancia de un sistema económico tradicional frente a la imparable revolución industrial, o por defender la tradición y los privilegios tradicionales y por otras razones de diversa índole que aquí no podemos abordar. Este tipo de conflictos se dieron prácticamente en todos los países que

hoy denominamos democracias occidentales y han determinado, en mayor o menor medida, nuestra forma de entender la realidad, sirviendo de base para las grandes revoluciones (económicas, sociales, etc.) del siglo XX que han dado lugar a nuestra sociedad actual.

Sin embargo, estos conflictos se han transmitido a la sociedad postmoderna simplificados, incluso reducidos a clichés, distando mucho de su origen complejo. En el caso que nos ocupa, el legitimismo carlista es visto desde puntos de vista muy diferentes en la España actual. De

forma similar, en Estados Unidos las causas de la Confederación se han visto prácticamente reducidas a una defensa a ultranza de la esclavitud y a factores raciales, omitiendo otras causas políticas que también la llevaron a sublevarse. O, en Francia, la causa de los legitimistas vandeanos.

Y eso se debe, en parte, a la visión que el cine nos ha dado sobre estos conflictos. Y es que el cine es reflejo de la sociedad en que se gesta la película, o al revés, el cine crea y moldea la opinión y la visión de la sociedad sobre una época concreta¹. Por tanto, adentrarnos en las visiones que se han dado en el

cine del carlismo, nos meterá de lleno en visiones interesadas y simples, o en todo lo contrario, en análisis concienzudos y reconstrucciones rigoristas de los hechos.

Las numerosas películas que, con más o menos rigor, han tratado los conflictos decimonónicos en nuestro país, bien merecen un análisis académico. El estudio del cine que ha abordado esta temática en España y Francia permitirá al ciudadano acercarse a estas visiones cinematográficas, en el marco del Museo del Carlismo de Estella-Lizarra.

¹ Clarísimos ejemplos son las grandes producciones de Hollywood, que ya han creado un subgénero en el cine histórico y de aventuras y han determinado la percepción de una realidad histórica. Por ejemplo, el cine de piratas o el llamado *péplum*.